GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

20/2014 FORU AGIDUA, urtarrilaren 22koa, Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren aitorpen-likidazioa egiteko 595 eredua aldatzen duena.

Martxoaren 7ko 222/2008 Foru Aginduaren bidez Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren aitorpen-likidazioa eta eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkeztu eta ordaintzeko eredu, epe, toki eta baldintzak onartu ziren. Eredu horien artean, eta foru aginduaren I. eranskin gisa, 595 eredua ageri da, Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren hiruhileko aitorpen-likidazioa egiteko erabili beharrekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluaren bat apartatuan ezartzen duenez, zerga bereziak itundutako tributuak dira, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta ordainketa ereduak onartzeko ahalmena izango dute, eta likidazio aldi bakoitza ordaintzeko epeak ere zehaztu ahal izango dituzte. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan beharko dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuak, tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurriak ezartzen dituenak, eta uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege Dekretuak, sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko premiazko neurriak ezartzen dituenak, aldaketak sartu zituzten zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean, eta berrikuntzetako bat da ikatzaren gaineko zergan tasa murriztu bat sortu dela erabilera profesionala den kasuetarako.

Hori dela-eta, 595 eredua aldatu beharra dago ikatzaren gaineko zergan izandako aldaketetara egokitzeko.

Horrenbestez, hau.

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Ikatzaren gaineko zerga bereziaren aitorpen-likidazioa eta eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkeztu eta ordaintzeko eredu, epe, toki eta baldintzak onartzen dituen martxoaren 7ko 222/2008 Foru Aginduaren I. eranskina foru agindu honekin batera doan eranskinarekin ordezten da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko urtarrilaren 22a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(496) (593)

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 20/2014, de 22 de enero, por la que se modifica el modelo 595 de declaración-liquidación del Impuesto Especial sobre el Carbón.

Por Orden Foral 222/2008, de 7 de marzo, se aprobaron los modelos, plazos, lugares y condiciones para la presentación e ingreso de la declaración-liquidación y de la declaración resumen anual de operaciones del Impuesto Especial sobre el Carbón. Entre dichos modelos se encuentra el modelo 595 de declaración-liquidación trimestral del Impuesto Especial sobre el Carbón, que figura como anexo I de la citada Orden Foral.

Según dispone el apartado uno del artículo 33 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Los Reales Decretos-leyes 7/2013, de 28 de junio, de medidas urgentes de naturaleza tributaria, presupuestaria y de fomento de la investigación, el desarrollo y la innovación, y 9/2013, de 12 de julio, por el que se adoptan medidas urgentes para garantizar la estabilidad financiera del sistema eléctrico, introdujeron modificaciones en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, entre cuyas novedades podemos encontrar la creación de un tipo reducido en el Impuesto sobre el Carbón para los usos con fines profesionales.

Es por ello que procede modificar el modelo 595 para adaptarlo a las modificaciones realizadas en el Impuesto sobre el Carbón.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único.

Se sustituye el anexo I de la Orden Foral 222/2008, de 7 de marzo, por la que se aprueban los modelos, plazos, lugares y condiciones para la presentación e ingreso de la declaración-liquidación y de la declaración resumen anual de operaciones del Impuesto Especial sobre el Carbón, por el anexo que se adjunta en la presente Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 22 de enero de 2014.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(496) (593)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

8400054402014

Ikatzaren gaineko Zerga Berezia
Impuesto especial sobre el carbón

Aitorpen-likidazioa
Declaración-liquidación

595

1 Identifikazioa / Identificación

IFZ NIF	**Jarduera Kodea** Código de actividad (3)	**Deiturak eta izena edo sozietatearen izena** Apellidos y nombre o razón social			
Zerga helbidea Domicilio fiscal			**Zk.** Núm.	**Oina** Piso	**Telefonoa** Teléfono
Udalerria Municipio		**Posta kodea** Cód. Postal	**Probintzia** Provincia		

2 Sortzapena / Devengo

Ekitaldia / Ejercicio .....

Zergaldia / Periodo .....

4 Likidazioa / Liquidación

Epigrafea Epígrafe	**Zerga Oinarria** Base Imponible	**Zerga tasa** Tipo Impositivo	**Kuota** Cuota

Data
Fecha .....

Aitortzailearen sinadura
Firma del declarante

Administrazioaren Alea / Ejemplar para la Administración

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

8400054402014

Ikatzaren gaineko Zerga Berezia
Impuesto especial sobre el carbón

Aitorpen-likidazioa
Declaración-liquidación

595

1 Identifikazioa / Identificación

IFZ NIF	**Jarduera Kodea** Código de actividad (3)	**Deiturak eta izena edo sozietatearen izena** Apellidos y nombre o razón social			
Zerga helbidea Domicilio fiscal			**Zk.** Núm.	**Oina** Piso	**Telefonoa** Teléfono
Udalerria Municipio		**Posta kodea** Cód. Postal	**Probintzia** Provincia		

2 Sortzapena / Devengo

Ekitaldia / Ejercicio .....

Zergaldia / Periodo .....

4 Likidazioa / Liquidación

Epigrafea Epígrafe	**Zerga Oinarria** Base Imponible	**Zerga tasa** Tipo Impositivo	**Kuota** Cuota

Data
Fecha .....

Aitortzailearen sinadura
Firma del declarante

Subjektu Pasiboaren Alea / Ejemplar para el Sujeto Pasivo

IKATZAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK.

Eredu hau idazmakinaz edo boligrafoz bete behar da, gainazal gogor baten gainean idatziz eta letra larriak erabiliz.

ERNE: moneta zenbateko guztiak eurotan adierazi behar dira, ezkerraldean zati osoa jarriaz eta eskuinaldean zati hamartarra, betiere bi digituz osatua.

(1) Identifikazioa.

Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) adierazi beharko da, subjektu pasiboaren izen-deiturak edo sozietatearen izena. Subjektu pasiboak IFZ izan beharko du, eta ikatzaren jarduera kodearen (IJK) bidez Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren zergapekoen erroldan identifikatuta egon beharko du. Bietako bat ez badu, eredua aurkeztu aurretik eskatu edo alta eman beharko du.

Establezimendua. Zehaztu beharko da:

- Kontsumo tokia, kontsumitzailea zergaren subjektu pasiboa denean.
- Biltze tokia, produktuaren birsaltzailea denean.
- Zerga helbidea, birsaltzaileak biltegirik ez duenean.
- Ekoizpen unitatea, birsaltzailea ekoizle/erauzlea denean

(2) Sortzapena.

Ekitaldia: aitortzen den zergaldiaren urteko lau zifrak adieraziko dira

Zergaldia: hiruhileko aitorpenak badira jarri honako hau:

1H= 1. hiruhilekoa 2H= 2. hiruhilekoa
3H= 3. hiruhilekoa 4H= 4. hiruhilekoa

(3) Ikatzaren jarduera kodea (IJK):

Jarduera kodeak Gipuzkoako establezimenduen jarduera identifikatzen du.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak emango du. Jarduera identifikatzen dituzten kodeak hauek dira:

- "CE" Ekoizleak/Erauzleak.
- "CC" Batasun barruko erosketen kontsumitzaileak.
- "CR" Birsaltzaileak.
- "IM" Inportatzaileak.

(4) Likidazioa.
Epigrafea: N0 Erabilera profesionaleko ikatza.
N1 Beste erabilera bateko ikatza.
Oinarri ezargarria. Likidazio aldiari dagokiona izango da eta ikatzaren ahalmen energetikoaz osatua egongo, gigajouletan (Gj).
Zerga tasa: Sortzapenaren unean indarrean dauden zerga tasak izango dira.
Kuota. Oinarri zergagarria zerga tasarengatik biderkatuz ateratako emaitza izango da. Eurotan adieraziko da bi zenbaki dezimal erabiliz.
Garrantzitsua:
Zergaldian diru sarrerarik ez badago, ez dago aitorpena aurkeztu beharrik.
Aitorpen-likidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epeak:
Lehen hogeita bost egun naturalen barruan, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Inprimaki honetan jartzen dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu pasealekua 2, Donostia.

IMPUESTO ESPECIAL SOBRE EL CARBÓN

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO.

Este documento deberá cumplimentarse a máquina o utilizando bolígrafo, sobre superficie dura y con letras mayúsculas.

IMPORTANTE: Todos los importes monetarios deberán expresarse en euros, consignando en la parte izquierda de las correspondientes casillas la parte entera y en la derecha la parte decimal, que constará de dos dígitos en todo caso.

(1) Identificación.

Se consignará el N.I.F. y los apellidos y nombre o denominación social del sujeto pasivo. El sujeto pasivo deberá disponer del NIF y estar identificado en el censo de obligados tributarios del Impuesto Especial sobre el Carbón, con el Código de Actividad del Carbón (CAC). Si careciera de alguno de estos requisitos, deberá solicitarlo o darse de alta con carácter previo a la presentación del modelo.

Establecimiento. Deberá consignarse:
- El lugar del consumo cuando el consumidor sea sujeto pasivo del impuesto.
- El lugar de almacenamiento cuando se trate de revendedores del producto.
- El domicilio fiscal cuando los revendedores no posean instalaciones de almacenamiento.
- La Unidad de producción, cuando se trate de productores/extractores de carbón.

(2) Devengo.

Ejercicio: Deberán consignarse las cuatro cifras del año a que se refiere la Declaración.

Periodo: Deberá consignarse el periodo impositivo al que se refiere:
1T= 1º Trimestre 2T= 2º Trimestre
3T= 3º Trimestre 4T= 4º Trimestre

(3) Código de Actividad del Carbón (CAC):

El código de actividad identifica la actividad de los establecimientos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Será concedido por el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
Los dígitos que identifican la actividad son:

- "CE" Productores/Extractores.
- "CC" Consumidores por adquisiciones intracomunitarias.
- "CR" Revendedores.
- "IM" Importadores.

(4) Liquidación.
Epígrafe: N0 Carbón destinado a usos con fines profesionales.
N1 Carbón destinado a otros usos.
Base Imponible. Será la correspondiente al periodo de liquidación y estará constituida por el poder energético del carbón, expresado en gigajulios (GJ.)
Tipo impositivo: Serán los vigentes en el momento del devengo.
Cuota. Será el resultado de multiplicar la base liquidable por el tipo impositivo. Se expresará en euros con dos decimales.
Importante:
Cuando en el periodo de que se trate no resulten cuotas a ingresar no es exigible la presentación de la declaración.
Plazos de presentación de las declaraciones-liquidaciones e ingreso de las cuotas:
Dentro de los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el trimestre en que se han producido los devengos.

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: Pº Errotaburu nº 2, Donostia-San Sebastián.